

Aretxagazeta

Atzeratuen egoitza berria

Martxo ingururako Durana kaleko 13. atarteko berritze lanak bukatzen badira, maiatzean jarriko da abian atzeratuen egoitza. Debagoieneko lehenengoa izango da, eta hamabi lagun biziko dira bertan.



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Truke
programa /8**

ERRETRATU ZAHARRA

**Mari Kruz andereñoari
omenalditxo /9**

LEINTZ GATZAGA

**Toponimia
berreskuratzen /10**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 16
FRAILE, J. Herriko plaza, 10... 943 79 21 99
DOMEKA, 17
FRAILE, J. Herriko plaza, 10... 943 79 85 83

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basoboa	943 77 09 81
Euskaltzgia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarteak	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11
UDALTAINGOIA	
Arrasate	943 79 14 39
LARRIALDIAK	
SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domekak: 11:00, 12:00
Zapatuak: 19:30
Lanegunak: 19:00

SANTA RITA
Domekak: 09:00
Zapatuak: 18:30
Lanegunak: 08:00

BASERRI AUZOETAN: ARIENTZAN
Domekak: 11:30

MENDIOLA
Domekak: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

ARKARAZO
Domekak: 12:30

OHARRAK

URTEURREN FESTA
Zainduz osasun eta *fitness* zentroak lehen urteurrena beteko du martxoaren 2an. Horretarako, goiz berezia antolatu du. 10:00etatik 12:30era bitartean, kirol jarduerak izango dira, bazkideendako, bazkide ohiendako eta gainerako guztiendako. Eta 13:00etan, luntxa izango da parte hartzaileendako eta Zainduz-eko bazkideendako.

YOGAKO HASTAPEN IKASTAROA

Zainduz osasun eta *fitness* zentroak beste zerbitzu bat jarriko du abian martxotik aurrera: yogako hastapen ikastaroa, hain zuzen ere. Martitzenetan eta egubakoitzetan izango da, 19:00etatik 20:30era. Informazio gehiago, 943 71 27 92 telefono zenbakian.

MURRUKIXOK ANTOLATUTA, MENDIRA ETA SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Datorren martxoaren 10ean, Murruxiko mendi taldeak bidaia antolatu du Aralarra. Hiruzpalau orduko ibilaldia egingo dute. Gero, sagardotegira bazkaltzera joateko aukera egongo da. Parte hartu gura baduzu, deitu edo eman izena lehenbailehen. Horretarako, pasa zaitez Murruxikoko lokaletik martitzen arratsaldeetan.

LORAMENDIRENAGENDA

ANTZERKIA
Loramendi Euskara Elkarteko Tril emakume taldeak antzerki emanaldia antolatu du datorren martxoaren 7rako (eguna). *Urak dakarrena... glú-glú, glú-glú...* dauka izena antzezanak, eta egilea Luis Fernández antzerkigilea da. Taula gainean, berriz, Esther Uria aktorea arituko da. Antzerkia udaletxe zaharrean izango da, arratsaldeko zazpietan.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

Euskara batzordeak eskatutako azterketa

1994an, Udaleko Euskara batzordeak Siadeco enpresari eskatu zion herrian azterketa soziolinguistikoa egiteko. Urte hartan, euskararen egoera aztertu zen herriko hainbat esparrutan. Azterketaren emaitzak Siadeco enpresako kide Kike Amunarrizek eman zituen aditzera.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martín Elexpuru

"Ufala"

Uholdea.
-Agostuko ufalak kalte aundiak ein zittuan.



LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- NOBELAK**
- *Los aires difíciles* / Almudena Grandes
 - *La noche detenida* / Javier Reverte
 - *La canción del mirlo* / Jenni Lauck
 - *Saltamontes* / Ruth Rendell
 - *Últimas noticias de nuestro mundo* / Alejandro Gándara
 - *Las nubes* / Juan José Sáez
 - *La pesquisa* / Juan José Sáez
 - *El ángel caído* / Boris Akunin

KONTSULTA LIBURUAK

- *Conversaciones con Juanito Oizubal* / Darío Rodríguez y Juan Castro
- *La globalización: perspectiva desde Euskal Herria* / Antxon Mendizabal
- *El vasco de la carretilla* / Txema Urrutia
- *Biopiratería: el saqueo de la naturaleza y del conocimiento* / Vandana Shiva

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



MENDIOLA
Jone Gisasola
22an. Berandu, baina zorionak! Nagore, Beñat, Unai eta etxeokak.



ESKORIATZA
Saioa Carballares
23an, 22 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



MENDIOLA
Josefa Arenaza
25ean. Zorionak! Jone, Nagore, Beñat, Unai eta etxeokak.



LEINTZ GATZAGA
Itziar Ceberio
27an. Zorionak eta muxu handi bat, zure ilobaren partetik.



ARETXABAETA
Saioa Berasaluze
1ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA
Sara Aranzabal
2an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARETXABAETA
Oier Arizabaleta
2an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

Zorionak denoi !!
Foto
Urkiola
Argazkidenda
HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABAETA
TELEF 943 79 39 20

- * ESTUDIOAK
- * EZKONTZAK
- * JAUNARTZEAK
- * ENMARKAZIOAK
- * DIGITAL LANAK
- * KAMARAK

Beti karretean edo albuma dahanik !!



EGUZKIGRAF
inprimategia

liburutxoak, sobreak, pegatinak, kalendarioak, kartak, fakturak, poltsak, tarjetak, katalogoak, triptikoak, publizitatea, jai egitarauak, kartelak, albaranak, aldizkariak, errekordatorioak,

1980tik zuen zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba Ibilbidea
20550 ARETXABAETA
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941
info@eguzkigraf.com

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABAETA
943 77 03 08



optika

Loramendi, 10
Aretxabaleta
Tel. 943 79 98 21


ATREBENTZIAEZPADA/ Aretxabaletan ez daukogu zinerik. Biherrezkue ikusten dozu? Zergaittik?




ITXASO ALTUNA
Langillie



ROSI DEL PALACIO
Langillie




KARMELE UNZUETA
Jubilaue



ALBERTO NÚÑEZ
Langillie



JOSE JAVIER IÑIGUEZ
Langillie



LUKI ELORZA
Jubilaue

Bai. Lehen, baeuen, eta ez dakit zergaittik itxi zan. Baiñe egingo dauela entzun dot, ez? Egitten hasi biher badie, danetik daukone egin daixiela, antzerkixe ikusteko lekue, gaztetxie...

Bai. Aste bukaeratarako guztiz biherrezkue ikusten dot, batez be, gaztetxuendako. Nagusixek Gasteizera joan arren, gaztetxuek herrixen elkarrekin pelikulak ikusi ahal izengo leukie.

Bai. Guztiz biherrezkue, gaztiak bestela ez daue jakituen ze egin. Dana dala, beste ikuskizun batzuetarako lokala be biherko litzake, antzerkixendako, esate baterako.

Ez dot hain biherrezkue ikusten, Gasteizera faten dielako gaztiak. Baiñe zenbait ikuskizunetarako lokal egoki baten faltie bai igerketan dot, paillazuek ikusteko, antzerkixek...

Ni neu ez naz zine zalie, baiñe gaztiendako denporie pasetako aukera bat dala uste dot. Jentie oin kanpora faten da herrixen bertan ez dogulako ganorazko ezer eskeintzen.

Bai. Beti egitten daue falta holakuek. Gure gazte denporan be baeuen zinie, eta oin be egon biherko litzake. Gaztiak eurek jakien, eta eskatu daixiela.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ITURRIGORRI FRONTOIA Herriko pilotari gazteek Iturrigorri frontoia dute entrenatzeko lekua. Palarekin jokatzera ere bikote bat baino gehiago joaten da, eta eskolako umeak ere ibiltzen dira. Hortaz, denona den zerbait denok errespetatu eta zaindu beharko genuke. Baina ez, hormak margotuta daude, kristalak sarri-sarri apurtzen dituzte, zikinkeria izaten da nagusi... /MIRARI ALTUBE

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /5 KIROLAK /6 HURRETIK /7

Jai batzordea osatzeko deia

Udaleko Kultura Sailak Jai batzordea berritu gura du. Hori dela eta, herritar guztiei dei egin die.

Zikloturisten denboraldia

Oraingo domekan hasiko dute herriko zikloturistek aurtengo denboraldia.

Antziñe Mendia

Urats-Gain zaharren egoitzako zuzendaria gertuagotik ezagutzeko aukera izan dugu.

ASTEKODATUA

240

MILIOI PEZETA PLAZAKO ERAIKINERAKO

Kurtzebarri eskolako DBHko ikasgelak egingo dituzte plazan dagoen eraikin zaharrean. Eusko Jaurlaritzak egingo du eskolako egoitza berria, eta 240 milioi pezeta beharko ditu horretarako.

BESTEKEESANA

“ Ingeles hiztunek euskaldunek baino kortesiako esaldi gehiago erabiltzen dituzte.

Hemen, adibidez, agurtzeko orduan *bihar arte* esaten da, eta beharbada bi lagun horiek bihar ez dute elkar ikusiko, baikorrek dira oso.

Ni, hona etorri aurretik, Madrilen bizi izan nintzen lau urtez, eta Euskal Herrira etortzea aldaketa handia izan zen. Euskaldunak hasieran oso itxiak zarete, baina, behin konfiantza hartuz gero, zeharo irekitzen zarete.

Etxean, normalean, ingelesez hitz egiten dugu, baina aitortu beharra daukat senarra euskalduna izateak asko lagundu didala euskaraz hitz egiten ikasteko orduan.

JULIA BARNES
ETB-1/02-02-20

HERRITARRENBERBAK/ Resu Abasolo



Hector

Hector: aukera hau erabili gura dut zure aurretik eta zure betiko lagunengatik eta zure besteok ikasteko aukeraguna aipatzeko.

Aurten, Santa Ageda mutila izan zara eta ohiturei jarraituz han eta hemen ikusi zaitugu

parrandan, egunero ko betebeharrak alde batera utzita, beti lagunengatik inguruan, ohitura horren joan-etorrietan euren laguntza ezinbestekoa baituzu.

Dantzatu ere egin zenuen arratsaldeko zapietan plazan, hain zeurea duzun tramankulu horri esker. Eta zeure Santa Ageda mutil lagunengatik zeu hautatu zintuzten aureskua zeuri eskaintzeko. Zirrara handia sentitu nuen, beste askok legetxe.

Zergatik zeu, betiko neska-aren orde? Ez diot inori galde- tu, beharrik ere ez dagoelako.

Zure lagunengatik 18 urte hauetan zurekin bizi izaten ikasi egin dutelako. Zure desberdintasunak konpartitzen dituztelako. Zure egoera hain hurbiletik

ezagututa, gai direlako zure lekuan jarri eta zure sentimenduetan kanporatzen laguntzeko. Zure ongizatea beharrezkoa dutelako eurenarekin batera. Zuri esker, etikoki eta moralki aberastu egin direlako. Zeu kontutan hartuta, gizarte hobea gura dutelako.

“Hector, zenbat erakutsi diguzun guztioi!”

Hector, zenbat erakutsi diguzun guztioi!

Javi, Jonas, Juan Antonio... (zure lagun guztiak) igeltse- roak balira bihar, ez lukete zu iritsi ezineko bazterrik utziko; ardura politikorik hartuko balute, kontuan hartuko zintuz-

kete zakarra biltzeko edukiontzia jarri aurretik; denda bat irekiko balute, barruraino sartu eta erosketak egin ahal izango zenituzke; arkitekto balira, aparkalekuak, tabernak... irekitzeko araudia aldatu egingo lukete eta udaltzainak izanez gero ondo miatuko lituzkete herriko bazterrak... esku- bidea duzulako besteok bezala gizartean ondo moldatzeko.

Hector: ez itzazu inoiz ezku- tatu zure premia eta beharrak.



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Animo neskak

Etxe barruko kontuekin hasiko naiz gaurkoan. Izan ere, kostata, ondo kostata atera dute gaur etxean jaso duzuen Aretxagazetako edizioa. Ordenagailuekin ibiltzen garenok, neu ere barne, badakigu sarritan traste hauek ematen dituzten sustotxoak. Ba... alea bukatzekotan zirela ordenagailuetako bat izorratu zitzaien. Eta ordura arte egindako lan gehiena txakurren salara. Larri eta estu ibili dira, baina banekien egubakoitzean neure etxean izango nuela. Eta halaxe izan da. Aurrera neskak, eta aupa, horrelakoetan behar izaten dira eta!

Elorrio? Horixe da azken egunotan herrian behin eta berriz irakurri dudana hitza. Elorrio non dagoen badakigu baina... Ez, beste kontu bat da. Txoritxo batek esan didanez, Aste Santuan Elorrioren Gazte Topaketak egingo dira, eta horregatik jantzi ei dute herria Elorrio jartzen duen karteekin. Aste Santua aipatu dudanez, aurten sekula baino agudoago izango dugu gure artean, martxoko azkeneko astean. Ordurako herritar batzuk Aberri Eguna gertatzen hasita daude. Beste batzuk sagardotegira joango dira hurrengo domekan, Murruxikoak. Aralarra irteera, eta ondoren txuleta ederra jatera. Ez dago txarto. Akaso neu ere animatuko naiz.

GIZARTEA/ Hamabi lagunendako lekua izango du egoitzak, eta Atzegik erabakiko du nor sartuko den bertan

Maiatz inguruan zabaldu gura dute Durana kaleko atzeratuen egoitza

MIRARI ALTUBE

Durana kaleko hainbat etxebizitza dabilta berritzen, tartean, 13. atartea. Hantxe, atzeratuen egoitza izango du Atzegik laster baten. Martxoan lanak bukatzen badituzte, maiatz ingururako zabalduko dute hamabi lagun hartuko dituen egoitza berria.

Orain dela urte batzuk, Casilda Iraeta aretxabaletarrak dirutxo bat utzi zuen Aretxabaletako atzeratuendako. Diru hori zelan erabili pentsatzeko, Atzegi Donostiako atzeratuen aldeko taldearekin harremanetan jarri eta, Foru Aldundiarekin batera, atzeratuei laguntzeko egoitza egitea erabaki zen. Debagoieneko lehengoa izango da, eta Gipuzkoan dagoen hamabigarrena.

DURANA 13-KO ATARTEA

Udalarekin batera etxebizitza bila ibili ostean, Durana kaleko 13. atartea utzi dio Aretxabaletako Udalak Atzegi elkarteari. Etxebizitzak hiru modulu izango ditu, guztiz bereiztuta hirurak ere. Guztira hamabi lagunendako lekua izango du, lau lagun moduluko.

Zerbitzuak komunak izango dira: sukaldaria, garbitasuneko arduraduna, jangelan ere batera egongo lirakeke. Beheko solairuan garbitasunerako gela eta bulegoa egongo dira, eta beste hiru solairuetan moduluak edo etxebizitzak. Igogailua ere izango du. Sarrera bai Durana kaletik bai atzetik izango dute, eta atzealdera patioa egongo da.

Durana 13ko etxebizitza osoa, ordea, ez da Atzegirendako. Eskumako aldean hainbat etxebizitza partikular eta Udalaren lokal bat daude. Aretxabaletako atzeratuen aldeko taldeak ere, Aratzek, 24 m²-ko gela txiki bat erosi du. Hemendik aurrera han egingo dituzte batzarrak taldeko kideek.

BERTAKO LANGILEAK

Hiru eratako langileak egongo dira egoitzan. Batetik, sukaldaria; gainera, oso lan garrantzitsua izango du sukaldaria. Jokin



Etxearen atzeko aldean patioa izango dute Durana 13. atarteko hamabi bizilagunek.

Antxia Aratz taldeko kidearen esanetan, ama papera bete beharko du: "Sukaldeko lanez gain, mahaia jarri eta jasotzen, eta antzeko lanak egiten erakutsi beharko die egoitzako kideei. Goxoa izan beharko du, baina, behar denean, gogorra ere bai". Bestetik, garbitasuneko arduraduna egongo da. Eta, az-

kenik, monitoreak. Azken horien lana ere garrantzitsua izango da, ordu asko egingo dituztelako eurekin. Herritarrei ere geratuko zaie zeregina. Izan ere, kanpotarrak bat baino gehiago izango dira, eta herria erakutsi eta bertan barneratzeko lanak norbaitek egin beharko ditu. "Ez da beste munduko lanik izango kafe bat har-

tzea, zer moduz dauden galdutzea... Eta egoitzako atekak izango dira zabalik", dio Jokin. Etxebizitzaren lanak martxo bukaera alderako bukatzea espero da, eta behin bukatuta, behar hala jantziko dute. Hortaz, maiatz ingururako Aretxabaletako egoitza zabaldu ahal izango dutela utzi du Jokin Antxiak.

Atzeratuen beharrak ase guran

Atzeratuen beharrak, urteen poderioz, aldatuz joan dira. Garai baten, egoitzetan bizi zirenek era berean kanpoan -lantegi txikietan- egiten zuten lan. Gaur egun, ostera, atzeratuak urte gehiago bizi dira eta erretiratutako eta gaixotasunak jotako atzeratuak ere badaude. Aretxabaletako egoitzan hainbat egoeratan dauden kideak batuko dira. Horregatik banatu da etxea modulutan, egoera berean daudenak batera bizi daitezten eta beste-

gandik banatzeko.

Egoitza Aretxabaletan egoteak ez du esan gura bertako atzeratuak sartuko direnik. Atzegik egingo du banaketa eta hark erabakiko du zein den egokiena.

Arrasaten Gureak elkartearen lantegia dago, Bergaran, Txolarte atzeratuen aisialdirako taldea, eta eguneko zentroa jartzeko asmoa ere badago. Hortaz, Aretxabaletako egoitzarekin, Debagoienak atzeratuen behar gehientsuenak aseta izango ditu laster baten.

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA
Egunero zabalik
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETAKO

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETAKO
Tel. 943 79 29 26

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETAKO

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

KULTURA/ Martxoaren 5ean hasiko da Jai batzorde berritua udako jaiak antolatzen

Jai batzordea osatzeko, deialdia egin zaie herritarrei

MIRARI ALTUBE

Udaleko Kultura Sailak herriko koadrilei eta, oro har, jaiak antolatzen lagundu gura duten guztiei dei egin die Jai batzordean parte har dezaten. Batzarrak eguaztenetan izaten dira, eta datorren martxoaren 5ean hasiko dira Jai batzorde berrituarekin lanean.

Herritar guztien gustuko festak antolatzea ez da gero lan samurra. Batek bakarrik antolatu beharrean batzorde batek pentsatu, erabaki eta aurrera eroaten baditu, ordea, beste kontu bat da. Horretarako, baina, herritarren parte hartzea nahitaezkoa da.

GAZTEAK ETA HELDUAK

Udaleko Kultura Sailak herriko hainbat koadrilari bidali dizkie gutunak, Jai batzordean parte hartzeko gonbidapenarekin. Gonbidapena, ostera, ez da koadrilendako bakarrik, herritar guztiendako baino. Baldintzak? Lan egiteko gogoia izatea, ideia berriak ekartzea eta batzarretara joateko konpromisoa hartzea.

Jaiak antolatzea gazteen kontua dela pentsatzen dutenak, bestalde, oker dabilta. "Gazteak bezain beharrezkoak dira nagusiak, denon gustuko jaiak egin gura baditugu, behintzat. Horregatik, hain zuzen, egingo nieke dei herritar helduei," dio Kultura teknikari Inma Miguelek.

HITZORDUA, EGUAZTENETAN

Jai batzordea eguaztenetan batzen da, 20:00ak aldera. "Hala ere, eguna eta ordua moldatu egin daitezke; hori, behintzat, ez dadi- la izan ez etortzeko aitzakia", dio Inma Miguelek. Inmak berak zuzentzen ditu batzarrak, eta batzuetan Kultura zinegotzi Sokorro Unanue ere izaten da. Herriko kulturaren inguruan mugitzen den hainbat taldetako jendea ere egon ohi da, Loramendi Euskara Elkarte ordezkarria, esaterako. Edozelan ere, azkenaldian parte hartzea asko jaitzi da eta zortzi edo hamar lagun baino ez dira elkartzten. Inmaren esanetan, horixe izan da, hain justu, deial-



Herriko jaiak antolatu gura dituenak jai batzordera joan besterik ez du.

ARTXB0A

"Gazteak bezain beharrezkoak dira nagusiak, denon gustuko jaiak egin gura baditugu"

dia egiteko arrazoia: "Gogoan dut San Migel jaiak antolatu genituen lehenengo urtean berrogeita hamar lagunetik gora genbiltzala Jai batzordean; eta, gainera, handik atera zen antzinako ezkontza antzezteko ideia".

GIRO PAREGABEA

Jai batzordean, bestalde, guztia ez da lan egitea. Giro ezin hobea egon ohi da eta izugarri ondo

"Azkenaldian parte hartzea asko jaitzi da, eta horixe da deialdia egiteko arrazoia"

pasatzen ei dute. Aurtengo San Juan bezpera eta andramaixak prestatzen ere hasi dira dagoeneko. Hala ere, oraindik ekintza asko dago lotzeko, eta martxoaren 5ean egingo den batzarrera zenbat eta herritar gehiago agertu, orduan eta hobeto. Azken baten, jaiak herritarrendako dira, eta herritarrok antolafuz gero, askoz hobeto. Hala, adin eta gustu guztiak hartuko dira kontuan.

TXUTXUMUTXUA



Giro paregabea izan zen eski irteeran

Joan den aste bukaeran, autobuskada bat aretxabaletar Luz Ardiden-en izan ziren. Murruxok urtero antolatzen duen eski irteera egin zen zapatutik domekara bitartean. Eskiatzeko asmoarekin joan ziren guztiak, eta eguraldiak askorik lagundu ez bazien ere, ibili ziren eski gainean. Gainera, ez zuen inork minik hartu. Ipurdiko bat edo beste bai, baina ez zen mediku beharrik egon. Erretratuari begiratu besterik ez dago ondo pasatu zutela antzemateko. /MIRARI ALTUBE


LABUR

Udaleko gaiak izan ziren nagusi astelehenean udaletxean egin zen ohiko osoko bilkuran

Astelehenean, hilaren 25ean, ohiko osoko bilkura egin zen, eta Udaleko gaiak izan ziren nagusi: batetik, Debagoieneko Industrialdearen hainbat lursailen lagapena onartu zen. 8.180 metro koadroko partzela, Basabe baseritik hasi eta Copreci atzealderaino doan lur eremua, Udalarari utzi dio Industrialdeak; bestetik, Tubos lantegi inguruan, gerora etxebizitza sozialak egingo diren lursailen mugak jarri ziren; eta, bukatzeko, Udaleko langileei aurtengo soldata %2 igotzea onartu zen. Guztiz bestelako gai bi ere jorratu ziren ohiko osoko bilkuran: batetik, bizi-testamentua arautzearen aldeko manifestua aurkeztu eta onartu zen; eta, bestetik, Bata-sunak euskal pilota selekzioaren aldeko mozioa aurkeztu zuen.

Irailean hasiko dira plazako eraikuntza botatzen DBHko ikasleentzat ikasgelak egiteko


Joan zen martitzenean Kurtzebarri eskolako irakasle eta gura-soek bilera izan zuten udaleko hirigintza teknikariarekin plazako egoitza dela eta. DBHko ikasgelak izango dituen egoitza berria Eusko Jaurlaritzak egingo du eta Jose Mari Segovia hirigintza teknikariak proiektuaren planoak erakutsi zizkien. Eskolako arduradunak bestalde, planoak ondo aztertzeotan geratu ziren, aldatetako egitekotan lehenbailehen egin behar baitira. Dena dela lehenengo bota egin behar da eraikuntza, iraila inguruan, eta ume asko dabilen lekuan kokatuta dagoenez segurtasun neurri ugari hartu beharko dituzte arduradunek.

 Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETAK
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

Jou Diaz

Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAK

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria




Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAK

J.J. IRURE
ITURBENTZAK

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETAK

 943 793 187

ZIKLOTURISTAK

Oraingo domekan hasiko dute zikloturistek aurtengo denboraldia

Urtero bezala, lehenengo irteera ostean, lore sorta eskainiko diote Dorletako Amabirjinari

MIRARI ALTUBE

Oraingo domekan hasi eta iraileko azken aste bukaera bitartean, makinatxo bat irteera egingo dute herriko zikloturistek bizikleta gainean. Lehenengo irteeran, eta ohiturari eutsiz, lore sorta eroango diote euren zaindaria-ri, Dorletako Amabirjinari.

Eguraldi ona hasi zaigu kukuka eta zikloturistak ere bizikleta gainean jartzeko irrikatan daude. Martxoarekin batera hasiko dute denboraldia, eta iraila bitartean izango dute, bai, hara eta hona ibiltzeko aukera.

DOMEKERO IRTEERAK

Herriko zikloturista taldeko presidentea Miguel Santateresa da. Berrogei bat lagunek dihardute taldean, nahiz eta domeketako irteeretan gutxiagok parte hartu. Eguraldiak laguntzen badu, behintzat, domeka guztietan irteerak ohi dira. Araba aldean eta Gipuzkoa inguruan ibiltzen dira gehienbat, gehiegi urrundu barik, baina 100 bat kilometro egiten dituzte ohiko irteera bakoitzean.

BIZIKLETA MAITE

Ez dago esan beharrik giro ona eta kiroltasuna izaten direla nagusi irteera guztietan. Candido Pérez taldeko kidearen esanetan, "bizikletari maitasunak elkartzen gaitu, eta adin guztietako jendea



Orain dela bi urte ere, Dorletako Amabirjinari lore sorta eskaintzera joan ziren.

batzen da irteeretan". Candido bera ere makinatxo bat kilometro egindakoa da, nahiz eta aurtengo irteera guztietara joaterik izango ez duen: "Semea txirindularitzan dabil, amateur mailan, eta hari lagundu behar diot. Hala ere, ekain aldera Quebrantahuesos proba egitea gustatuko

litzaidake, iaz ez nuen-eta egite-rik izan".

Ez da gero erronka makala, sasoiaren egon behar horretarako. Edozelan ere, argi dago ez dela adin kontua; izan ere, hogeitaz inguruko gazteak baino areago, berrogei urtetik gorako zikloturista gehiago ikusten da.

PILOTA

Aste bukaeran hasiko dute herriko pilotari gazteek Udaberri Torneoko bigarren zatia

Udaberri Torneoko lehenengo fasea bukatu da, eta aste bukaeran hasiko da bigarren zatia. Gainera, ez dira batere gaizki ibili, lau bikotek izango dute-eta finalera heltzeko aukera. Egubakoitzean eta zapatuan, final-laurdenak jokatu dira. Seniorrei elkarren aurka jokatzeko egokitu zaie: Errasti anaiek Lasagabaster eta Altzola izango dituzte aurre Iturrigorri frontoian. Bigarren mailako gazteak, Uriarte eta Oyón, Usurbilera joango dira eta lehen mailako gazteak, Altube eta Kortabarria, Beasainera. Gazteak, bestalde, Zaramagako Txapelketa jokatzeko dabilza.

MENDIA

Aralarrera irteera Murruxoren eskutik

Datorren martxoaren 10ean, domeka, Aralarrera egingo du irteera Murruxoren mendizale taldeak. Lau bat ordutako ibilaldia egin ostean, sagardotegira joango dira bapobapo bazkaltzera. Parte hartu gura duenak lehenbailehen eman dezala izena Murruxoren lokalean.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

UDA-Hondarribia
Preferentea.
Domeka. 16:30. Ibarra.
UDA-Antzuola
Bigarren mailako erregionala.
Zapatua. 16:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Euskaljolas
Kadeteak.
Zapatua. 19:00. Iturrigorri.
Aretxab.-Arrasateko
Gazteak.
Zapatua. 19:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Urola 1 UDA 0
Preferentea.
UDA 3 Union Txiki 1
Gazteen Euskal Liga.
A. Limpiezas 3 UDA 8
Bigarren mailako erregionala.
UDA 1 Luberrri 0
Bigarren mailako gazteak.
UDA Eibar
Lehenengo mailako kadeteak.
Hondarribia UDA
UDA 2 Antoniano 3
Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Aretxab. 1 Txapagain 22
Kadeteak.
Eibar 22 Aretxab. 11
Lehenengo mailako gazteak.
Aretxab. 10 Añorga 22
Bigarren mailako gazteak.
Añorga (2) 22 Aretxab. (2) 4
Añorga (1) 21 Aretxab. (1) 22
Seniorrak.

FOTOKIROLA



Eskola arteko herri kirol topaketak izan ziren martitzenean herriko plazan

Martitzen goizean, ikasle bete zen herriko plaza. Liburuak eskolan utzi eta, kirolari jantzia aldean hartuta, norgehiagokan ibili ziren. Zaku lasterketa, sokatira eta beste hainbat herri kirol probatzeko aukera izan zuten. Debagoieneko lau ikastetxetako gaztetxoak izan ziren lehian: Eskoriatzako Almenekoak, Arrasateko San Frantzisko Xabierkoak, Oñatiko Txantxiku Ikastolakoak eta Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolakoak, hain justu ere. Guztira, 210 neska-mutiko. Ondorengo egunetan, Arrasaten eta Bergaran egingo dira topaketak, eta onenek Gipuzkoako topaketa erraldoian hartuko dute parte. /MA

Lubia
oinetakoak



zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE



MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

LEIBAR
arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

ARETXABALETARRAK MUNDUAN

MIKEL MENDIARATX

23 URTE / IKASLEA / EDINBURGH-EN (ESKOZIA)

“Edinburgh-eko giroa eta jendea baino gehiago, gurago dut nire herrikoa”

AMAGIOIA LASAGABASTER

Aretxabaletatik kanpo bizi izateko gogoak eramane zuten Mikel Mendiarratx gaztea Eskoziaraino. Baina gogoak, dirudienek, ez zen nahikoa eta ikasketak batzuk egiteko ere aldatu zen Mikel herritik.


Irailan joan zen Mikel Edinburgh-era master bat egitera. Mikelendako garrantzitsuenak, baina, beste ikasketak batzuk ziren: “Orain arte Aretxabaletatik irten barik nengoen eta niretako horixe zen garrantzitsuenak, etxetik irteatea, alegia. Gaintontzean, ingelesa hobetu eta curriculumak handitzeko ikasketak egitera etorri naiz hona”.

Hala ere, milaka kilometro arren, Mikelek esan digu hemengoaren bizimodu antzerakoa daramala han ere: “Gosaldu, eskolara joan, bazkaldu, lan egin, eta parrandaren bat edo beste. Betikoa egiten dut gutxi gorabehera”. Baina hori guztia askatasun handiagoarekin egiten du Mikelek, eta horixe da, hain justu, gehien gustatzen

zaiona. Edinburgh, gainera, hiri handia da eta horrek bere abantailak ditu; esaterako, zinetokiak gertu egotea. Dena dela, Mikelek ez dauka Aretxabaleta saltzeko: “Edin-

burgh-eko giroa eta jendea baino gehiago, gurago dut Aretxabaletakoa, duda barik”. Beharbada horregatik etortzen da sarri-sarri Mikel etxera. Gabonetan egin zuen lehenengo bidaiak eta dagoeneko Aste Santuetarako beste bat gertatzen dabil. Hala ere, ez da gura adina etortzen: “Faltan igarri ditut herriko Aratustek eta sagardotegiko afariak”.

Bukatzeko, Mikelek, lerro hauen bitartez, koadrilakoei gogorarazi gura die azkenaldian gura baino e-posta gutxiago jaso dituela.



HURRETIK



Antziñe Mendia

Urats-Gain elkarteko zuzendarixe

Aurten, Antziñek hamabi urte beteko ditu Urats-Gain zaharren etxeko zuzendari. Lan lotue da; horregaittik, loteria tokau ezker, urtebeteko deskantsue hartuko leuke Antziñek.

Zela ba zahar etxeko zuzendari?

Ba, egia esatiaz, Gizarte Laguntzaille ikasketak egin nittuenien sekula ez jaten burutik pasau praktikak zaharrekin egingo nittuenik, baiñe hola suertatu zan eta hamentxe gabitz.

Eta oin gustoko lana da?

Lana nahiko monotonue da, politte, baiñe, dedikaziño haundixe biher dauena.

Ze lan egiten dozu?

Danetik apur bat: administraziño lanak, jarraipen medikuek, erosketak, istitu-ziñuekin hartu-emunek landu...

Urats-Gainen zenbat langile dabitz?

Oin momentuen, sei auxiliarrek eta neuk egiten dogu lan, 24 zaharrendako.

Ondo zainketan ditzuzue geure zaharrok?

Oso ondo. Horretan ez dauket dudarik.

Hala eta be, etxien hobeto dagoz?

Bai, guk dana emuten dutzugu, baiñe etxeko afektibidade hori ezin dutzugu bete-betien eskeiñi.

Zein da zaharrek daukien gaixotasun txarrena?

Bakardadie.

Egixe da zaharrek ume bihurketan diela?

Askotan bai. Gaiñera, malizixa danakin, bai onerako eta bai txarrerako.

Afiziñorik?

Ezer be egin barik egotie.

Irakurri dozun azken liburue?

Los Pilares de la Tierra.

Emakumien eguna ospaketan dozu?

Lehen, bazkariren bat egiten geuen, baiñe lan turnuek aldatu biher zien eta bertan behera geratu zan ohiturie.

A.L.

NIREBIDAIAHURA / Eli Barandiaran

Kenya / 1996ko maiatzetik ekainera

Eli Barandiaran eta senarra eztei-bidaian joan ziren Afrikara. Lehenengo bi asteak Kenyan eman zituzten, eta gero Tanzanian. Bidaia nahiko luzea eta, bide batez, aberatsa izan zenez, jarraian Kenyakoaren gainean jardungo dugu. Hamabost egun barru, berri, Tanzania izango dugu hizpide.

Afrikar esan ohi duten moduan, Elik eta senarrak *akuna-matata* egin zuten bidaiak, hau da, lasaitasun osoz. Safari erako ibilbidea egin zuten bi astean. Aberdares-en hasi eta *jeep* baten Ark, Masai-Mara, Nakuru lakua, Amboseli, Nairobi eta Mombasako erreserbak eta parke naturalak ikusi zituzten. Bidean, jakina, guztia izan zen abentura. “Bidaia antolatua izan zen, baina guk ez geneukan horrelako sentsaziorik: goizean jaiki eta ez genekien egun horretan zer ikusiko genuen”.

Eta hala zen. *Jeep* baten sartuta, munduko lekuri ederretakoak eta munduko animaliarik ikusgarrienak ikusi zituzten. Horrez gain, hemengo herriekin zerikusirik ez duten tribuekin ere izan ziren. “Masai tribukoak ezagutu genituen, eta umeei gozokiak eman genizkien. Baina eurek, batez ere, sendagaiak eskatzen dizkiete atzeritarrei”.

Edozelan ere, bihotzeraino heldu zitzairen Kenyako imajina hango kolore kontrasteak izan ziren: “Sugandila moduko animaliek milaka kolore dituzte, tribuak kolore bizi-biziz jantzita doaz, leku baten desertua dago, eta handik gertu sekulako oihana, ilunabarreko eguzkia... denak dira kolore aldaketak”.


Eliri biziki gustatu zitzaion beste gauza bat hotelak izan ziren: “Oihanaren erdian daude, baina parajeari kalte egin barik; gainera, hango langileak egun osoan zuri mesedeak egiteko daude, horrela bai bizi daitekeela!”



“Masaiak sendagaiak eskatzen dizkiete atzeritarrei”

“Afrikako kolore kontrasteak gustatu zaizkit”

AMAGIOIA LASAGABASTER



Eli Barandiaran eta senarra Ekuador marraren gainean.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 1a / 70. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com

Amerikatik eta Afrikatik etorritako 13 gazte izango dira gure artean hilabetez

AINTZANE GARDOKI

Horixe eman zuten aditzera Truke Programa bultzatzen duten Mundukide Fundazioak eta HUHEZI Fakultateak, azken horretan martitzenean egin zen prentsaurrekoan. Gazteak hilabetez izango dira gure artean, hemengo esperientziak bizi izateko asmoz.

Mundukide Fundazioak enpresen eta herri pobreen arteko elkartasuna bultzatzea du helburu nagusi, eta Truke Programaren helburua, berriz, elkartasun hori praktikara eramatea da. "Elkartasun ereduak noranzko bakarrekoak izan dira ia beti. Dirua eman zaie herri txiroei eta askotan hor amaitu izan da elkartasuna. Guk beste bide bat, bi noranzkoko esperientzien trukea, jarri nahi izan genuen abian; hau da, etortzen direnak gure esperientzietatik ikasten dutena, eta guk haiengandik ere ikasten duguna", adierazi zuen HUHEZiko irakasle Jon Sarasuak.

HIRUGARREN URTEZ

Duela bi urte hasi zuten esperientzia hori. Orain arte, Erdial-



HUHEZiko Fakultatean egin zuten prentsaurrekoan azaldu zuten aurtengo Truke Programa.

deko Amerikatik eta Hego Amerikatik etorri izan dira gazteak. Aurtun, aldiz, Afrikatik ere hiru gazte etorri dira. Hilabete egingo dute 13 gazte horiek Deba-

goienean. "Euskal Herriko hainbat esperientzia erakutsi nahi zaie; bisitaldiak egingo dituzte industria eta nekazari kooperatibetara; hitzaldiak eta solasal-

diak ere izango dituzte HUHEZIn ikasleekin. Eta, bestalde, haien esperientziak hurretik bizi izateko aukera ere izango dugu", esan zuten arduradunek.

"Dirua ematen zaie herri txiroei, eta askotan hor bukatzen da elkartasuna"

"Etortzen direnek gugandik ikasten dute, baina guk haiengandik ere ikasten dugu"

"Haien esperientziak hurretik bizi izateko aukera izango dugu"

HERRITARREN HITZA / Joseba Urkia

Gautxori kantariak

Auzo txiki batean bizi naiz, albo-alboan eliza eta elizako arkupea ditudala. Ez da zarata handirik izaten inguruotan, patxada ederrean pasatzen direlako kotxe gehienak, 1 Formularako praktikak egiten ari den zitroen txiki gris odol beroko bat izan ezik. Fin ari da, uste dut laster izango dela gauza bide ertzeko olazi ilara jo barik, airean, beheko zelairen batean agertzeko. Saiatzen denak beti lortzen du; animo, ondo habill!

Baina ez da hori interesatzen zaidana. Beste bisitari batzuk agertzen dira noizean behin, hontza agertzen den

ordu inguruan, denak baitira gautxori.

Harritu, ordea, ez nau horrek egin; harritu, hegaztien antzera, kantatzeko duten joera izan da. Hasieran, nolabaiteko errezeloa ere banuen (eta orain ere bai), lotarako orduan kotxeen musika-soinu aukeran altuegia eta

ortuan zakar poltsaren bat eta botila batzuk agertu zirelako; baina egoerari beste alde batetik begiratzen hasi nintzen



"Bisitariak agertzen dira hontza agertzen denean"

aurreko batean, etxera iritsi eta arkupean gitarra joaz kantuan ari zirela ikusi nituenean.

Hara, kuriozosa etxetik nonbaitera irten, gitarra hartu eta jendeak arrats edo iluntzearen zati bat kantuz pozteko adorea badaukala ikustea, *botellon* eta antzekoen garai

debekuzale honetan. Andaluzian egon nintzen batean, ikusi nituen kalean, umore ederrean, batzuk kantuan, besteak

gitarraren hariei eraginez eta gainontzekoak txalo eta txalo, baina hemen, garaje edo almagaren bat edo musika-eskola edo kontserbatorio hotzak iruditzen zitzaizkidan sormen-adierazpen horren ohiko leku (bide batez, kontserbatorio eta hotz, bikote polita, ezta?).

Hurrengo ikusten ditudanean, beste kantu baten letra osatzeko gaia emango diet: bere bizinahiaren indarra gitarraren harietan baino kotxearen azeleragailuan xahutzen duen zitroen txiki gris odol berokoaren gidaria.

LABUR

Kaleen izenak aldatzeko egitasmoa, geld

Duela hilabete batzuk, Udalak herriko kale batzuen izenak aldatzea proposatu zuen. Herritarrek alegazioak egiteko epea izan zuten, eta bi alegazio bakarrik egin dituzte herritarrek.

Udalak idatziz jaso duen alegazio bakarra Ederlan kooperatibak egin du. Kooperatiba horrek Gaztañadui izena aldatzeko buruhauste bat baino gehiago ekarriko liokeela argudiatu du, inprimaki gutzietan helbide hori erabiltzen duelako. Orain, gaia geld

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastol.	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospital. (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 71 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

EMAKUMEAREN EGUNA AMUSKAREN ESKUTIK

8an, Emakumearen egunean, 18:00etan eta herriko plazan, herri animazioa eta luntxa izango da hurbiltzen den edonorentzat.

9an, beraien eguna ospatzeko Marisanean afaria egingo dute emakumeek. Izena emateko egunak, martxoaren 4an eta 5ean Kultur Etxean.


SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Martxoaren 9an Gazte Asanbladak antolatuta, Otsuena sagardotegira joango dira Aldatz tabernan martxoaren 7rako izena ematen dutenak.

AXTROKIREN AGENDA

DINAMIZATZAILEA AUKERATZEN

Uste baino jende gehiago aurkeztu da Axtrokik eskaini duen lanposturako. Aste honetan jasotako curriculumak aztertu dituzte baina oraindik ez dute erabakia hartu.



Herrian eraitsiko dituzten eraikuntzen artean lehena bota berri dute San Juan kalean

San Juan kaleko lehenengo zenbakian hasi eta herriko plaza-raino doazen eraikin guztiak botako dituzte laster. Inguru horretan etxebizitzak egingo dituzte, eta, eraikuntza lanak hasi aurretik, urbanizazio lanak egingo dituzte. Bolibarrerako bidearen desbideratzea ekarriko du horrek. /A.G



Mankomunitateak edukiontzia egoki erabiltzeko dei egin die herritarrei

Mankomunitateak ibarreko herrietan zaborrak botatzeko edukiontzia jarri ditu oraintsu. Lehenengo arazoak sortu dira non-bait, eta Mankomunitateak dei egin die herritarrei: batetik, zehaztutako egunetan eta orduetan atera behar dela zaborra eta, bestetik, zaborra edukiontzian sartu behar dela. /A.G

ERRETRATUZAHARRA

Omenaldi txiki bat Marikruz andereñoari

Urdelardero eguna joan zen, baita Aratusteak ere, baina Jose Arana Ikastolako Marikruz Oiangurenen lankideek ez dute hura izandakoari eta hark egindakoari joaten utzi nahi. Hura izan zen-eta herriko ikastolako lehenengo andereñoa; hura izan baitzen, gainera, duela gutxi ospatutako Urdelardero eguna herritarrondako berreskuratu zuena. 1975. urteko argazkiko ikasle taldearekin ohitura eta abestia landu zituen lehenengoz, eta hain estimatua dugun eguna eman zigun opari.

Argazkia: Itziar Gurtubai




Charter

Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala 3
ESKORIATZA

Tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9:00-13:30 eta 17:00-20:00



MIRENTXU
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko

Tel.: 943 71 41 67



ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi
itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540



Herriko baserri guztiek daramate euren izena sarrera nagusiaren ondoan

AINZANE GARDOKI

Joan den zapatuaz gerotik, herriko baserri bakoitzak atartearen bere izena darama, egurrean egina. Gatzagako Baserri eta Toponimoen Markaketa proiektuaren barruan kokatzen da egitasmo hori. Helburua, herriko hainbat txokoren izenak jakitea.

GUREL elkarteak, ludotekako ume eta gaztetxoekin batera egiteko proiektu bi aurrez ikusi zituen joan den ikasturtean: bata, Gatzaren Ekomuseorako diaporama egitea zen, eta bestea, Gatzagako Baserri eta Toponimoen Markaketa proiektua lantzea.

Azken horren helburua da herriko baserrien, mendien, ibaien, txokoen eta zuloen izenak berreskuratu eta jakitea. "Betidanik, ahoz aho egindako transmisioari esker jakin izan ditugu herriko lekuen izenak, baina azkeneko urteotan transmisio hori eten egin dela ikusi dugu. Horregatik jarri gura izan genuen proiektua abian, izenak jakin eta erabiltzeko", esan digu GUREL



AINZANE GARDOKI

Argazkian ikus ditzakezuen Andra Mari eta San Martin baserriak ere egurrean daramate izena jarrita, joan den zapatuaz gerotik.

elkarteko lehendakari ohi Periko Orobengoak.

Bederatzi eta hamahiru urte bitarteko umeek hartu dute parte, gurasoekin lankidetzan. Herriko mapa topografikoari buruz informazioa jaso eta mapa

egitea zen, besteak beste, landu beharrekoa. "Guk uste baino parte hartze txikiagoa izan dute umeek; eguneroko eskolaz kanpoko ekintzek mugatu egin diete parte hartzeko aukera, baina aurretiaz, egindakoak jarraipene


na izatea espero dugu. Irteerak egingo ditugu baserriaz baserri ibili eta bakoitzaren izenak jakiteko", azaldu digu Orobengoak.

Euskaltzaindiak baserrien izenak aztertu eta zuzendu ditu, eta Lurkoi enpresak egurrean

landu ditu baserrien izenak.

Joan den zapatuan, herriko ia baserri guztiei jarri zieten izena atarteetan. Eta proiektuak aurrez ikusten du herriko beste txoko batzuek ere laster izango dutela euren izena.

ATREBENTZIAEZPADA/ 6.000 automobil pasatzen dira herritik egunero. Zer deritsozu?



IBON OÑEDERRA
langilea



MARTXELIN PLAZAOLA
erretiratua




MIKEL APERRIBAI
langilea



BIXEN AZKOAGA
langilea



MAMEN CALDERA
langilea



INA ALONSO
langilea

Irtenbidea topatu behar da, herriarendako arazoa da eta. Horretan agintariek hartu beharko lukete esku, baina itsu daude nonbait. Herritarrok elkarte bat osatu beharko genuke agian.

Beldurgarria da. Ni ortura pasatzeko askotan bost minutu egoten naiz zain. Horregatik, gizonari debeatuta diogu hara joatea. Automobil larregi ibiltzen da; asko eta asko, presaka.

Oso arriskutsua da, batez ere, euria egiten duenean. Aramaioko bidea zabaldu zuten ba, hau zergatik ez? Aspaldiko kontua da. Eta, bitartean, geroago eta istripu gehiago izaten da.

Hori da arazoa. Gu bide ertzean bizi gara eta egoera gogorra bizi dugu. 10 urteko alaba oraintxe hasi da bidea bakarrik gurutzatzen. Zaila da egunero beldur horrekin bizitzea.


Behin, umeak eskolara eramaten izan nuen istripua. Zer egin dezakegu? Zein da irtenbidea? Rally-ak egiteko inguruko biderik aproposena dugun dudarik ez daukat, behintzat.

Geroago eta gogorragoa da gora eta behera ibiltzea. Azken boladan okerrera egin du egoerak. Herrirako ditugun sarrerak eta irteerak ere arriskutsuak dira. Irtenbidea topatu behar da.

FAGOR



Fagor Ederlan, S.Coop



MONDRAGON
AUTOMOCION

AUTOENDAKO OSAGAIK

Gaztainadui, 42 • 20540 ESKORIATZA • Tel.: 943 71 90 00



DORLETA

Aranburuzabala, 22 behe
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

Luis Fernandezekin
Esther Uriarekin

Martxoaren 7an, osteguna, 19:00etan
Udaletxe Zaharrea
ONDOREN, LUNTX-A EGINGO DA


Antolatzaileak
Loramendi Euskara Elkartea
Tril Emakume Taldea

Urak
dakarrena...
glu-glu
glu-glu...

STAND-UP COMEDY

Glu-glu produkzioak

Karapaixoa Garizumako opari goxoa



Aretxabaleta okindegia

Loramendi, 6 (943 77 17 19) eta Basabe, 2 (943 77 00 81)
Aretxabaleta. Bertako okina.